

**LGTBIfobiarik
GABEKO
UDALERRIEN
SAREA**



AURKIBIDEA

1. LGTBifobiaren AURKAKO SARE BAT	4
2. PROGRAMAREN JATORRIA LANDA-INGURUNEAN	6
3. PROGRAMAREN OINARRIAK	8
4. HELBURUAK	10
5. SAREAN SARTZEKO PROZESUA	12
6. EKINTZAK	15
7. EBALUAZIOA ETA AHOLKUAK	18
8. ESPERIENTZIAK TRUKATZEKO GUNEA	21
9. HARTZEN DIREN KONPROMISOAK	22

1. LGTBIfobiaren AURKAKO SARE BAT

LGTBIfobiarik gabeko Udalerrien Nafarroako Sarea Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) programa bat da, sexu- eta genero-aniztasunaren arloko politika publikoen esparrukoa. Xedea da Nafarroako Gobernuak eta toki administrazioek LGTBIfobiaren kontra borrokatzeko konpromisoa gauzatzea.

NABIk "Sexu- eta genero-aniztasuna (LGTBI+) Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateetan sartzeko analisi estrategikoa" txostena prestatu zuen 2021ean. Azterlan horretan jaso ziren toki entitateek dituzten zailtasunak sexu- edo genero-aniztasunaren arloan zernahi ekintza edo politika publiko ezartzean.

Programa horrekin, NABIk laguntza eman nahi du zailtasun horiei aurre egiteko, eta foru administrazioaren eta udalerrien artean sexu- eta genero-aniztasuneko politikak ezartzeko ibilbide-orri komuna egiteko.

Sexu- eta genero-aniztasunaren alde eta LGTBIfobiaren kontra dauden udalerrien sarea sortu eta sendotzea erronka handia da Nafarroarendako, baina bereziki garrantzitsua da LGTBIfobia pertsonen eskubideetan aurrera egiteko. Udalak dira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak eta, beraz, erantzun azkarren eta eraginkorra eman dezaketenak. Hori dela eta, NABI n argi dugu: sexu- eta genero-aniztasuneko politika publikoetan aurrera egin nahi bada, foru- zein toki-araubideko erakundeek batera egin behar dutela lan eta, orobat, administrazio bakoitzak dituen aukerak eta indarguneak aprobetxatu behar direla.

RED DE
MUNICIPIOS
LIBRES DE
LGTBIfobia



**LGTBIfobiarik
GABEKO
UDALERRIEN
SAREA**

LGTBIfobiarik gabeko udalerrien sareak hiru lan-ildo handi ditu: udal egituraren egokitzapena, langileen prestakuntza eta herritarren sentsibilizazioa. Era berean, toki entitateen eta Nafarroako Gobernuaren artean eztabaida eta hausnarketarako gune komun bat sortzen da, bi administrazioek aurrera egin dezaten sexu- eta genero-aniztasunaren arloan politika publikoak gehiago eta hobeki ezar daitezzen.

Azken finean, NABI n uste dugu programak toki entitateek agerian utzitako behar bati erantzuten diola eta, horretaz gainera, jardunbide egokien sare bat sortzen duela, LGTBIfobia pertsona guztien bizitza hobetu eta gure arau-esparruaren aginduak bete nahi duten politika publikoak egiteko.

Eva Isturiz García,
Nafarroako Berdintasunerako
Institutuko zuzendari kudeatzailea

2. PROGRAMAREN JATORRIA LANDA-INGURUNEAN

Laiak Erdialdea LGBTBI+ Elkarteak sortu da herrietan LGBTBI+ pertsonak dituzten arazoei eta beharrei aurre egiteko beharretik; arazo eta behar horiek Iruñean daudenekin alderatuta desberdinak dira. Entitatearen helburua beti izan da Nafarroako Erdialdeko LGBTBI+ pertsonak ahalduz, haien giza eskubideak defendatzea eta sentsibilizatzea eta ikusgai jartzea.

2020an, Covid-19ak eragindako pandemiak etxeratzea ekarri zuen berekin. Elkarteak asaldatzen zen komunikabideetan ikusten zuenean Europar Batasuneko zernahi herrialdeetako udalerriek eta gobernuek esaten zutela "LGTBI+ pertsonarik gabek" zirela. Giza eskubideak urratzen ari ziren eta LGBTBI+ pertsonak estigmatizatzen.

Tafalla izan zen lehena. 2021eko apirilaren 21ean adierazpen instituzional bat onetsi zen, eta alderdi politiko guztien eta Tafallako gizarteko beste estamentu batzuen babesa jaso zuen. Hasiera besterik ez zen. Helburua zen Erdialdeko gainerako udalerrietara ere ailegatzea. Hori dela eta, elkarteak erabaki zuen adierazpena beste udalerririk batzuetan ezagutzera ematea. Udalerririk guztiak bat egin zuten adierazpenarekin eta LGBTBI+ fobiari gabeko eremu bilakatzeko konpromisoa hartu zuten.

Beharrezkoa zen mugimendu handi hura ikusgai jartzea. Hartara, Tafallako Nafarroa plaza aukeratu zen adierazpena Erdialdeko gizarte osoari erakusteko. 2021eko ekainaren 24a zen. Adierazpena sinatu zuten alkateak bertan izan ziren, baita Nafarroako beste udalerririk batzuetakoak ere, hala nola Lekunberrikoa, Zizur Nagusikoa, Murchantekoa eta Erronkaribarko Batzordeko burua eta, orobat, Nafarroako herrietako LGBTBI+ elkarteak, Hormak esaterako. Nafarroako Berdintasunerako Institututa ere bertan zegoen, Eva Istúriz zuzendariarekin, eta Nafarroako Parlamentuko alderdi politikoen ordezkariak ere.



Adierazpen hori onartu ondoren, garrantzitsua da azpimarratzea kudeaketa zeharkakotasunez gizarte-hun osora hedatzen ari zela eta herrietan LGBTBI+ eskubideen alde lanean hasten zirela, azpitik hasita, herritarrak hurbilen duen erakundetik, alegia. Orain, NABIk gure erakundeak hasitako lanei jarraipena eman nahi die eta, gainera, LGBTBI+ fobiari gabeko espazio seguruak sortzeko balio duten lan-ildo eta ekintza zehatz batzuk ematen dizkio.

Carlos Montoya,
Laiak Erdialdea
elkartearen presidentea

3. PROGRAMAREN OINARRIAK

Munduan badira herrialdeak beren buruak "LGTBI+ pertsonarik gabekotzat" dituztenak (herrialde horietan sexu-orientazio heteronormatiborik gabeko pertsonak kontzentrazio esparruetan sartzen dituzte).

Testuinguru soziopolitiko horretan beharrezkotzat jo da adieraztea izan badirela, aldi berean, jarrera horiek guztiak baztertzen dituzten udalerriak eta "LGTBifobiarik gabekoak" direla diotenak, hots, sexu- eta genero-aniztasuna onartzen duten gune seguruak.

Bestalde, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak sakondu zuen sexu- eta genero-aniztasunaren onarpena sozial eta politikoa ekitatezko eta errespetuzko baldintza osoetan. Aipatutako foru lege horrek 3. artikuluan ezartzen du "Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak, **Nafarroako toki entitateek** eta haien mendeko edo haiekin lotuta dagoen edozein entitatek, zuzenbide publiko zein pribatukoak izan, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, **foru legea betetzen dela bermatuko [dutela], eta eraginkorra izan dadin behar diren baldintzak sustatuko [dituztela], zeinek bere eskumenen esparruan. Ildo horretatik, sexu-orientazioari, genero-adierazpenari eta sexu-**

edo genero-identitateari buruzko ekintza positiboak lagunduko [dituztela], eta, halaber, Erkidegoko LGTBI+ asoziazionismoari eta dituen proiektuei sostengua emanen [ditela]."

Foru lege horretako bereko 7. artikuluan zehazten da nolako behar duen izan erakundeen aitorpena eta laguntza. Ezartzen da administrazio publikoek "lagunduko [dutela] Nafarroan LGTBI+ pertsonak ikusgai jartzen. Bide horretan, kanpaina eta ekintza positiboak babestu eta eginen dituzte, sexu- eta genero-aniztasunaren balio positiboa sustatzeko helburuarekin".

Ildo horretan, 2021ean zehar, Nafarroako toki entitateetan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzearen gaineko azterlan diagnostikoa egin zen. Azterlan horren helburua zen "Nafarroako toki entitateek LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea ezartzean dituzten trabak, sinesmenak, mugatzaileak/eragozpenak, tresnak eta baliabideak aztertzea".

Ondorioen artean dago langileei prestakuntza eman eta **sexu- eta genero-aniztasunaren arloan politika publikoak egiteko tenorean plangintza egin beharra.**

Bestalde, azterlan horrek zenbait gomendio ere egin zituen, sexu- eta genero-aniztasuna udaletan txertatzen laguntzeko. Gomendio horietan oinarritu gara gu programa hau egiteko.

Programa horrekin sexu- eta genero-aniztasunaren alde lan eginen duten udalerrien sare bat sortu nahi da. Aldi berean, NABIk lagunduko du 8/2017 Foru Legeak agindutakoa toki administrazioetan ezartzen. Horretarako, toki entitateen konpromiso benetako eta eraginkorra erdietsi nahi da, asmoen adierazpen bati atxikitzeaz harago doana. Sareari atxikitzea lehen urratsa da eta horren ondorioa izan behar du benetako konpromisoa hartzea LGTBI+ politikak udaletan bultzatzera bideratutako ekintza oso zehatzak hartzeko. Behin sareari atxiki ondoren, hartutako konpromisoen betetze-maila urtero ebaluatuko da.

Konpromiso guztiak beterik, kalitate zigilua erdietsiko da LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialaren arloan. NABIk emanen du.

Prozesu osoan zehar, NABI harremanetan egonen da sareari atxikitzen zaizkion toki entitateekin. LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzako teknikariek aholkularitza eta laguntza emanen dute egin nahi diren ekintzak lortze aldera.

4. HELBURUAK

Helburu orokorra

LGTBifobiarik gabeko udalerrien sarea sortzea Nafarroako Foru Komunitatean; sare horrek lan eginen du sexu- eta genero-aniztasunaren alde eta LGBTBI+ pertsonendako gune atseginak sortuko ditu.

Berariazko helburuak

- Udalen eskumenak kontuan izanik, Nafarroako toki entitateekin batera ekintza zehatzak zehaztea, LGBTBI+ Pertsonen berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea ezartzeko.
- Jardunbide egokien gunea sortzea Nafarroako toki entitateen artean sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.
- Udaletako langileendako prestakuntza-prozesuak bultzatzea sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.
- Sexu- eta genero-aniztasuna ikusaraztea, gizartea aberasten eta giza aniztasunaren beste parte bat osatzen duen elementu gisa.
- Komunikazio-bideak indartzea NABIren, toki entitateen eta Nafarroako Gobernuko LGBTBI+ Pertsonen Arreta Integrala emateko Zerbitzuaren (Kattalingune) artean.



5. SAREAN SARTZEKO PROZESUA

1. Atxikimendu eskaera

NABlren webgunean atal berri bat sortuko da; hartan azalduko da programa. Hantxe jarriko da programara atxikitzeo dagokion udalak bete beharreko eskaeraren inprimakia (l. eranskina). Eskaera NABlren LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzara igorriko da eskabide orokor baten bidez.

2. Atxikimendua onartzea

LGTBI+ arloko teknikariek modu formalean egindako eskaerak baloratuko dituzte. Behar diren tramiteak egin ondoren, interesdunari jakinaraziko zaio sareari atxikitzeo eskaera onartu edo ukatu den, eta behar den dokumentazioa igorriko zaio.

3. Konpromisoa sinatzea

Sarean onartu ondoren, data bat adostuko da atxikimendua eta hartatik datozen konpromisoak sinatzeko. Sinadura lehen urratsa besterik ez da. Nahi da proiektuan egin beharreko ekintzak sartzea eta sinadura ez izatea asmoen adierazpen hutsa.

4. Ekintzak egitea

Puntu honen barnean, atxikitako udalak zenbait ekintza garatuko ditu, 3 multzotan banatuak: udal politikak, prestakuntza eta sentsibilizazioa. Ez dago hurrenkera zehatzik horretarako; toki entitate bakoitzak egingen ditu haren ahalmenen eta beharren arabera. Halaber, ez da behartzen urte bakoitzean ekintza kopuru zehatz bat egitera. Nolanahi ere, NABl ahali eta gehienak egitera animatzen du. Prozesu honetan guztian, NABl aholkularitza eta laguntza emanen du prozesuan.

5. Ebaluazioa

Urtero, LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzako langileak sareari atxikitzeo izendatutako pertsonarekin jarriko dira harremanetan eta egindako ekintzak ebaluatuko dira. Hala, ekintzak zenbateraino egin diren jakinen da. Betetze-maila horren arabera izanen da aitorten-maila:

a. %0 - %40

“Sexu- eta genero-aniztasunaren alde lan egiten duen udalerrria”.



b. %41 - %80

“Sexu- eta genero-aniztasunarekin lagunkoia den udalerrria”.



c. %81 - %100

“Sexu- eta genero-aniztasunarekin lagunkoia den eta LGTBIfobiarik ez duen udalerrria”.




6. Aholkuak

Ebaluazioa egin ondoren (egindako ekintzetako eta egin gabe utzitakoetako aukerak, zailtasunak, indarguneak eta ahulguneak aztertuko ditu udalerrri bakoitzak), LGTBI+ arloko berdintasunerako Zuzendariordeztako teknikariek egin gabe gelditu diren ekintzak gauzatzeko banakako aholkuak emanen dituzte.

7. Kalitate zigilua lortzea

“Sexu- eta genero-aniztasunarekin lagunkoia den eta LGTBIfobiarik ez duen udalerrria” azken maila erdietsi ondoren, NABIk kalitate zigilua emanen dio toki entitateari, edozein udal-elementutan erabil dezan, nahi izanez gero.



6. EKINTZAK

Atalean azaldutako ekintzak “Azterketa estrategikoa, sexu- eta genero-aniztasuna (LGTBI+) Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateetan sartzeko” txostenean oinarrituta daude. NABIk egin zuen txosten hori, 2021ean.

Udal politikak

- Sexu- edo genero-aniztasuna lantzeko batzordea sortu edo txertatzea.
- Aurrekontuko partida bat sortzea, sexu- edo genero-aniztasuna lantzeko eta LGTBIfobiari aurre egiteko.
- Udalerriko/zonako LGTBI+ pertsonen errealitate sozialaren diagnostikoa egitea, bakarka edo denen artean.
- Sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko inprimakiak eta dokumentazio ofiziala (udalenak zein erakunde autonomoenak) berrikustea.
- Inprimakiak eta dokumentazio ofiziala (udalenak zein erakunde autonomoenak) berrikustea, askotariko familiak kontuan izateko.
- Udaleko langileen artean LGTBIfobiagatiko diskriminazio-kasuak daudenean prebentzio eta jarduketarako protokoloa sortzea.
- Plan lokala egitea, udalerrian sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko.
- Festetan eta ikuskizunetan izan ohi diren eraso LGTBIfobikoaren kontrako protokoloa ezartzea.
- Udalerriko sarreretan seinaleak jartzea eta haietan adieraztea udalerriak ez dituela onartzen eraso LGTBIfobikoak.

Prestakuntza

- Laguntza zuzena ematen duten langileei prestakuntza ematea sexu- edo genero-aniztasunaren arloan.
- Udaltzainei prestakuntza ematea LGTBifobiagatiko gorroto-delitueta eta biktimei arreta ematekoetan.
- Udaltzainei prestakuntza ematea sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.
- Gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea sexu- eta genero-aniztasunaren arloan, haurtzarolari, nerabezarolari, adinekoei eta askotariko familiei bereziki bideratua.
- Udaleko langile guztiei aditzera eman eta animatzea Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak sexu- eta genero-aniztasunaren gainean ematen duen oinarritzko prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Politikariei prestakuntza ematea sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.
- Esperientziak eta jardunbide e gokiak trukatzeko jardunaldietan parte hartzea.

Sentsibilizazioa

- NABIk maiatzaren 17an (M17) egiten duen sentsibilizazio kanpainari atxikitzea edo kanpaina propioa egitea.
- NABIk ekainaren 28an (E28) egiten duen sentsibilizazio kanpainari atxikitzea edo kanpaina propioa egitea.
- NABIk apirilaren 26an (A26) ikusgaitasun lesbikoaren egunaren kariatara egiten duen sentsibilizazio kanpainari atxikitzea edo kanpaina propioa egitea.
- Sexu- edo genero-aniztasunaren gaineko sentsibilizazio kanpainak egitea kolektibo zaurgarriagoei zuzenduta, hots, adinekoei, haurrei, desgaitasuna duten pertsonari, migratzaileei...
- Sexu- eta genero-aniztasuna sustatzen duten jarduerak udalerraren kultura agendan txertatzea.
- Tokiko saltokiak sentsibilizatzea LGTBifobiarik gabeko guneak sortu beharraz.
- Eraikin publikoak LGTBI+ pertsonendako gune seguruak direla dioten seinaleak jartzea.
- Horma-irudi bat egitea, sexu- edo genero-aniztasunaren balioa sustatuko duena eta/edo hiri altzariak aldatzea LGTBI+ pertsonak ordezkatzeko dituzten koloreak erabilia.

Garrantzitsua da argitzea ekintza horiek sartu behar direla udal eremuan sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko politikak ezartzen laguntzen duen esparru batean, gorago aipatutako azterlanaren emaitzetan oinarrituta. Halaxe, sareari atxikitako udalerriek erabakitzen ahalko dute ekintzak zein hurrenkeratan edo nola egin nahi dituzten, udalen autonomia errespetatuz horrela. Era berean, azterlan horretan sartu gabeko bestelako ekintzak egin ditzakete, nahi badute. Ebaluatzean, NABIk ezarritako irizpideak betetzen badituzte, kontuan hartuko dira.

Prozesu osoan zehar, NABiren langileek aholkua eta laguntza emanen dute ekintzak ezartzeko eta betetzeko. Erreferentziako teknikari bat esleitu zaio udalerriri, harekin harremana izateko. Era berean, udalerriak proiektuaren ardura hartuko duen pertsona bat izendatuko du eta NABI harekin jarriko da harremanetan.

7. EBALUAZIOA ETA AHOLKUAK

NABIK badaki edozein motatako politika publikoak ezartzen hastea zaila dela. Halaber, jakin badakigu udal guztiek ez dituztela baliabide eta aukera berberak. Hori dela eta, ulertzen dugu ebaluazio fasearekin batera udal bakoitzari banakako aholkuak eman behar zaizkiola.

Ebaluazio prozesuak helburu bikoitza du:

- Udal bakoitzak hartutako konpromisoaren ezarpen-maila zein den egiaztatzea.
- Jardunbide egokiak, zailtasunak eta haiek nola gainditu diren erakustea, eta ezartzeko aukerak hautematea, sarean sartutako gainerako udalerriekin partekatzeke.

Horretarako, urtero ebaluatuko dira egindako ekintzak. Lehenik, erabaki behar da zer ekintza egin behar den eta egiteko zenbat denbora beharko den. Ekintzetako asko egin eta haiek bukatzeko denbora beharko da.

Lehen urrats honetan, beharrezkoa da hasierako jarraipen fitxa betetzea (III. eranskina) eta NABIn LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzako teknikariei igortzea. Fitxa betetzeko, beharrezkoa da ekintza zehatzarekin lotutako adierazleak ezartzea eta zer emaitza espero den adieraztea.

Ekintza bukatu eta ebaluazio-fasea hasitakoan, III. eranskinaren bigarren partea bete behar da. Betetze-maila (osoa, partziala edo nulua) adierazi behar da. Era berean, beharrezkoa da lehenago ezarritako adierazle kuantitatiboak (espero diren emaitzak) benetan lortutako emaitzekin erkatzea. Ebaluazio kualitatiboak egiteko, emaitzak baloratuko dira, zailtasunak, egindako aldaketak eta aurkitutako indarguneak kontuan hartuta.

Ebaluazio fasearen azken urratsa NABIn aholkuak dira. Ebaluazio fitxak bete ondoren, LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzako teknikariek aholkuak emanen dituzte egindako ekintzetan aurkitutako zailtasunak oinarri hartuta. Era berean, hurrengo ekintzak zein izan daitezkeen iradokiko dute, sareari atxikitako udalerrri bakoitzaren errealitatearen arabera.

Une horretan ere jakinarazten zaio sareari atxikitako toki entitate bakoitzari zein den beren betetze-maila eta, beraz, zer mailatan dauden. Posizionamendu hori NABIn webgunean eguneratuko da: <https://www.igualdadnavarra.es/eu> Halaber, NABIk eskura dituen komunikazio-kanaletan adieraziko da, egindako lanari balioa emateko gisa.



7.1. KALITATE ZIGILUA

Programaren xedea da sareari atxikitako udalerriek sexu- eta genero-aniztasunaren arloan kalitate zigilua lortzea, NABIk behar bezala egiaztatu ondoren.

Toki entitateek zigilu hori erabil dezakete edozein dokumentazio ofizialetan, komunikatuetan, sentsibilizazio kanpainetan, seinaleetan edo beren eskumenen lurraldearen barnean sexu- eta genero-aniztasunaren arloarekin zerikusia duen zernahi gaietan.



8. ESPERIENTZIAK TRUKATZEKO GUNEA

NABIk sareari atxikitako toki entitateek parte hartuko duten foro bat sortzea bultzatuko du. Foro horren helburua da sareko partaide diren udalen artean jardunbide egokiak edo ekintzak trukatzea, prestakuntza-jarduerak batera prestatzea (politikariendakoak zein teknikariendakoak) eta gune bat sortzea, non batera hausnartu ekintzen eta haien zailtasunen ezarpenaz NABIk ekintza horiek gauzatzeko erantzun egokia presta dezan.

Foro horrek urtean behin egingen du bilera, ekintzak ebaluatu ondoren. Hala eginez gero, NABIn teknikaiek ikusiko dute zein diren sareko kide diren gainerako udalerrietan aurkezteko modukoak diren jardunbide egoki horiek. Era berean, aurkitutako zailtasunak gorabehera, zailtasun horiek gainditzen laguntzen segitzeko prestakuntza-jarduera zehatz bat presta daiteke.

9. HARTZEN DIREN KONPROMISOAK



Nafarroako Berdintasunerako Institutua	Udala edo toki entitatea
Laguntzea, aholkuak ematea eta informatzea prozesu osoan.	Parte hartzea proiektuaren etapa guztietan.
Urtero topaketa bat egitea, proiektuaren ekintzen inguruan esperientzia eta jardunbide egokiak trukatzeko.	Parte hartzea NABIk antolatzen dituen prestakuntza-saio guztietan.
Urtero prestakuntza-gune bat egitea sexu- eta genero-aniztasuneko gaian eta/edo LGTBifobiari kontra egitearen gaian.	Parte hartzea NABIk jardunbide egokiak trukatzeko topaketa guztietan.
Mantentzea eta handitzea Nafarroako toki entitateei emandako dirulaguntza, LGTBI+ bultzatu eta laguntzeko proiektuak garatzeko.	Partekatzea ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak LGTBI+ berdintasun-politikak ezartzean, sexu- eta genero-aniztasuna udaletan sartzean eta LGTBifobiari aurre egitean eta desagerraraztean.
Egindako ekintzak ebaluatzeko prozesua egitea, horren inguruko ondorioak itzultzea eta ekintza horiek gauzatzeko banakako aholkuak ematea.	Proiektuko ekintzak gauzatea.
Erreferentziako teknikari bat izendatzea, harekin harreman zuzen eta banakakoa izateko.	Baliabide ekonomiko eta materialak eta langileak jartzea adierazitako ekintzak gauzatzeko.
	NABIk eskura jarritako ebaluazio-fitxak betetzea eta prozesu honetarako beharrezkoa den dokumentazioa eskura jartzea.

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua